II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Udal eraikin eta instalazioetako arduradunen lan poltsa handitzea

Udal honek, 2020ko urtarrilaren 22an egindako tokiko gobernu batzarrean, udal eraikin eta instalazioetako arduradunak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa bat oposizio lehiaketaren bidez handitzeko oinarriak onartu zituen.

Deialdia arautzen duten oinarriak erantsi dira:

Udal eraikin eta instalazioetako arduradunak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa bat handitzeko deialdia arautuko duten oinarriak

1. Deialdiaren xedea

Deialdi honen xedea aldi baterako zerbitzuetarako langileak hautatzea da, udal eraikinetako arduradunen lan poltsa handituz.

Sailkapen taldea: lanbide taldea.

Eginkizunak:

a) Instalazioak kontrolatzea. Besteak beste, eginkizun hauek dauzka:

– Bere ardurapeko eraikin eta instalazio guztiak ireki eta ixtea.

– Eraikina eta instalazioa unean-unean emandako erabilerarako prestatzea.

– Instalazioak kontrolatzeko lanak:

• Botika kutxaren egoera.

• Eraikin eta instalazio osoaren egoera.

• Eraikinak eta instalazioak ezarrita dauzkaten fitxa eta agiri guztiak betetzea.

– Bere ardurapeko eraikinak eta instalazioak zaintzea barne araubidearen araudia bete dadin.

b) Garbiketa:

– Esleitutako eraikina eta instalazioak eta haien sarbideak garbitu beharko ditu.

c) Mantentze lanak:

– Eraikina, instalazioak eta dauden makinak egoera ezin hobe berean mantendu behar ditu, eta konponketa txikiak egin eta berehala eman behar die haien arduradunei berak konpondu ezin duenaren berri.

– Berokuntza eta ur beroaren sistemaren funtzionamendua ezagutu eta hura programatzeaz arduratzea.

– Landareak zaintzea.

d) Bestelakoak:

– Udalak bere ardurapeko eraikin eta instalazioan ezarrita dauzkan jardueretarako izen emateak egitea.

– Eraikinean eta instalazioan sortzen diren tasak biltzea.

– Eraikin eta instalaziora doazen pertsona guztiei arreta eta informazioa ematea.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

2. Lanpostugaien baldintzak

1. Hautaketa prozesuan parte hartu ahal izateko baldintza hauek bete beharko dira:

a) 16 urte beteta edukitzea.

b) Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea edukitzea edo, bestela, Europar Batasunak egin eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunak ezartzearen ondorioz, langileen zirkulazio askea onartuta daukaten estaturen bateko kide izatea.

Halaber, Europar Batasuneko estatuetako herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta legez bananduta ez badaude, bai eta herritartasuna duenaren eta haren ezkontidearen ondorengoek ere —baldin eta horiek ere legez bereizita ez badaude—. Azken horiek hogeita bat urte baino gutxiago izan beharko dute edo bestela gurasoen kontura bizi.

Era berean, aurreko paragrafoetara bildu ez diren atzerriko pertsonek ere parte hartu ahal izango dute, baldin eta espainiar estatuan bizi badira. Hautatzen badituzte, kontratuaren helburu den jarduera egiteko administrazio baimena dutela egiaztatu beharko dute, kontratua formalizatu baino lehen.

c) Titulazioa: lehen mailako ikasketen ziurtagiria edo baliokidea.

d) Word, Excel, Access, internet eta posta elektronikoko oinarrizko mailaren IT txartela edukitzea.

e) Euskararen ezagutza: 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta edo egiaztatu gabe balego eskatzaileak azterketak egin eta geroago egiaztatu ahalko du eskakizuna lan poltsan sartzeko.

f) Bete beharko duen funtzioa behar den bezala betetzea eragotziko dion gaixotasun edo akats fisikorik ez edukitzea.

g) Diziplina espedientearen bidez edozein administrazio publikoren zerbitzutik baztertua ez izatea, eta ebazpen judizialaren bidez enplegu edo kargu publikoetarako, funtzionario kidego edo eskalan sartzeko, edo langile lan-kontratudunen kasuan baztertua edo desgaitua izan den karguan betetzen zituen eginkizunen antzekoak betetzeko desgaikuntza absolutu edo berezian ez egotea. Batasuneko beste estatu batekoak diren izangaiak ezin dira egon desgaituta enplegu publikoan aritzeko (ez eta horren baliokide den egoera batean ere), eta ezin jaso izan dute beren estatuan enplegu ofiziala lortzea eragozten duen diziplinako zehapenik ez antzekorik.

h) Administrazio publikoko langile izateko ezgaitasun edo bateraezintasuneko legezko kausan sartuta ez egotea.

2. Baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den unean eduki beharko dira. Baldintza horiek prozesu osoan eduki beharko dira.

Lanpostugaiek jatorrizko agiriaren edo kopia erkatuaren bidez egiaztatuko dute, epaimahaiak ezarritako epean, deialdiaren baldintzak eta alegatutako merituak betetzen dituztela. Hizkuntza eskakizuna oinarri hauetan ezarritako moduan egiaztatuko da.

3. Lan baldintzak

Langile lan-kontratudunen postuak dira, udalari aplikatzen zaion hitzarmeneko 7. mailari dagozkion ordainsariekin eta zerbitzuaren beharrizanen araberako arduraldiarekin.

Ordutegia astelehenetik igandera izango da (biak barne).

4. Eske idazkiak eta onarpena

4.1. Lan poltsarako deialdian parte hartzeko eskabideak Dulantziko alkateari zuzenduko zaizkio eta Dulantziko Udalaren erregistro orokorrean aurkeztuko dira bulego orduetan (09:00 - 14:00).

Eskaera orriak Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16. artikuluak ezarri dituen bide eta bitartekoen bidez ere aurkeztu ahal izango dira.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4.2. Lehenengo deialdiko eskabideak aurkezteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, hura ALHAOn argitaratzen denetik hasita. Hurrengo deialdietako epeak garaia denean ezarriko dira.

4.3. Eskabidea oinarrien I. eranskinean kopiatutako ereduaren arabera egingo da eta eskatutako titulazioaren fotokopia erantsiko zaio hari.

4.4. Gainera, 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko da, alegia, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta hizkuntzen Europako erreferentzia marko bateratuko mailekin parekatzen dituen azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuak aurreikusten dituen tituluetakoren bat aurkeztu beharko da.

4.5. Alegatutako merezimenduak egiaztatzeko agiriak ere aurkeztuko dira eskabidearekin batera. Eskabideak aurkezteko epearen barruan alegatu eta behar bezala frogatzen diren merezimenduak baino ez dira baloratuko.

Administrazio publikoan egindako zerbitzuak ez dira frogatu beharko, langileria kudeatzeko zerbitzu egokiaren aurrean berariaz aitortuta baldin badaude.

Eskabide orriak aurkezteko epea amaituta, gobernu batzordeak izangai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onetsiko du.

Ebazpen hori udalaren iragarki taulan argitaratu eta erakutsiko da, baita web orri honetan ere: www.alegria-dulantzi.eus.

Zerrenda horietan baztertu gisa ageri diren izangaiek bost eguneko epea izango dute bazterketaren aurkako erreklamazioak jarri eta hura eragiten duten akats edo agiriak ongitzeko.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitutakoan, izangaiak onartzea ala baztertzea erabaki zuenak ebatziko ditu erreklamazioak.

5. Epaimahai kalifikatzailea

Hauek izango dira epaimahaikideak:

Epaimahaiburua: Vanessa Domínguez Casal.

Ordezkoa: Marta Ramírez Gómez.

Epaimahaikideak: Juan José Alburquerque Gajate.

Ordezkoa: María Teresa Martínez de Marañón Noriaga.

Pedro María Sáez de Maturana Gallardo.

Ordezkoa: Patricia Álvarez Lavín.

Idazkaria: Inmaculada Galerón Iglesias.

Ordezkoa: Fernando Alonso Puente.

Nolanahi ere epaimahaiak bere lanetan aholkulariak sartzea erabaki ahalko du, hautaketa prozesuak dauzkan proba guztietarako edo batzuetarako.

Epaimahaikideek ez dute esku hartuko eta udaleko alkateari jakinaraziko diote Sektore Publikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan xedatutako gorabeheraren bat egonez gero, eta lanpostugaiek epaimahaikideak ezetsi ditzakete aipatu legearen 24. artikuluan xedatutakoaren arabera aurreko artikuluan xedatutako gorabeheraren bat dagoenean.

Epaimahaikide guztiek hizpide eta hautespide izango dituzte, idazkariak izan ezik, azken horrek hautespiderik izango ez baitu.

Epaimahaiaren erabakiak bertan daudenen botoen gehiengoz hartuko dira, eta berdinketarik badago, lehendakari diharduenaren botoak ebatziko du.

Epaimahaia ordezkoek ere osatuko dute.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Epaimahaia ezin izango da eratu ez eta jardun ere, bere kideen erdiak baino gehiago, titular nahiz ordezko, ez baldin badaude.

6. Hautaketa prozesua hasi eta burutzea

Oposizioko ariketa bakarra egiteko lekua eta data udaleko iragarki taulan eta udalaren web orrian (www.alegria-dulantzi.eus) argitaratuko dira, onartutako eta baztertutako izangaien zerrenda onesten duen ebazpenarekin batera.

Oposizioaren gainerako ariketak egitearen ondorengo iragarkiak epaimahaiak argitaratuko ditu udalaren iragarki taulan eta web orri honetan: www.alegria-dulantzi.eus.

Izangaiak deialdi bakarrean deituko dira ariketa bakoitzerako.

Agertzen ez direnak baztertuta geratuko dira.

Prozeduraren edozein unetan, epaimahaiak izangaietako bati deialdian eskatzen diren baldintzaren bat falta zaiola jakin badu, aurretiaz interesdunari entzunaldia eginda, baztertuta geratuko da, eta hautaketa prozesua deitu duen agintaritzari jakinaraziko zaio.

7. Hautaketa prozesua

Izangaien hautaketa prozesuan aldi hauek izango dira:

Oposizio aldia:

Lehen ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Zenbait galderari erantzun beharko zaie idatziz lanpostuaren eginkizunei buruzko hautazko erantzunekin.

0tik 10era puntuatuko da eta 5 puntu beharko dira gainditzeko.

Bigarren ariketa. Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Epaimahaiaren aurrean berak lanpostuari buruz jarritako hiru kasu praktiko ebatzi beharko dira.

Oposizioa epaimahaikideek emandako puntuazioen batuketaz kalifikatuko da, guztirakoa kide kopuruaz zatitu eta zatidura, ariketa bakoitzaren behin betiko kalifikazioa izango da.

0tik 10era puntuatuko da eta 5 puntu beharko dira gainditzeko.

Ariketa bakoitzeko puntuazioak erabakitzen diren egun berean jendaurreratuko dira.

Hirugarren ariketa. Euskara egiaztatzea.

Ez da hizkuntza eskakizunik egiaztatzeko azterketarik egingo.

Euskarazko ezaguerak eskabidean alegatu beharko dira. Data horretan eskakizuna egiaztatuta ez baleuka, eskatzaileak hautaketa prozesuaren amaieran egiaztatu ahalko du, lan poltsan sartzeko.

Ez dituzte ezaguera horiek alegatu beharko Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen hizkuntza eskakizunen erregistroan hizkuntza eskakizun horren egiaztagiriaren titular izen emanda dauden izangaiek; egiaztagiri hori eskabidea aurkezteko epea itxi aurreko datakoa bada.

Halaber, euskararen ezaguerari buruzko titulu eta ziurtagiriak baliozkotzeari buruzko araudiaren arabera, euskararen ezagueraren baldintza egiaztatuta izango dute ordenamendu juridikoak HAEEk emandako 2., 3. eta 4. hizkuntza eskakizunekiko baliokidetasuna ematen dien titulu edo ziurtagirietakoren bat daukatenek.

Hori guztia, titulua edo ziurtagiria edukitzea hautaketa prozesuan parte hartzeko eskabidean alegatu eta deialdi honetan baliokidetasuna balioarazi nahi zaion titulu edo ziurtagiria eskabideak aurkezteko epea itxi aurreko data batean lortu bada.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

HAEEk emandako hizkuntza ikaskizunekin baliokide den titulu edo ziurtagiri bat edukitzea egiaztatzeko:

a) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari atxikitako irakasleen eremuko hizkuntza eskakizunean datzan titulu edo ziurtagiria, Euskadiko Autonomia Erkidegoko hizkuntza eskola ofizialen euskarako gaitasun agiria, Osakidetzaren eremuko hizkuntza eskakizun bat, Ertzaintzaren hizkuntza eskakizun bat, edo Kultura Sailak helduentzako euskararen irakaskuntzarako oinarrizko curriculumak ezartzen duen euskararen ezaguera mailak egiaztatzeari buruz emandako ziurtagiri bat alegatu bada, aukera hauek izango dituzte izangaiek:

– Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeari berariazko baimena ematea erregistroetan sartzeko, egindako alegazioa zehatza dela egiaztatu eta hautaketa prozesuan titulu edo ziurtagiri hori aurkeztu beharrik ez izateko.

– Baimen hori berariaz ez ematea eta, horretarako ezarritako epean, alegatutako titulu edo ziurtagiria daukatela egiaztatzea.

b) Alegatutako titulu edo ziurtagiriari dagozkion euskararen ezaguerak arestiko a) letran adierazitakoak ez badira, horretarako ezarritako epean, titulu edo ziurtagiri hori daukatela egiaztatu beharko dute.

Lehiaketa aldia:

Oposizio fasea gainditzen duten izangaiak lehiaketa aldira pasako dira.

Epaimahaiak meritu hauek balioetsiko ditu, eskabidean alegatu eta behar bezala egiaztatu badira.

Prestakuntza:

Behean zerrendatutako arloetako prestakuntza ikastaro bakoitzeko, 20 ordutik gorakoak badira, 0,1 puntu ikastaro bakoitzeko gehienez 2 punturaino.

– Jendearen harrera.

– Dei zentroa.

– Administrari laguntzailea.

– Ikus-entzunezko baliabideetako oinarrizko prestakuntza.

Lan esperientzia:

Lanpostugai den lanpostuaren antzeko batean emandako zerbitzuak, 0,15 puntu hil bakoitzeko, gehienez 2 punturaino.

8. Onartutako pertsonen zerrenda, agiriak aurkeztea eta kontratazioa

Berdinketa gertatuz gero honela ebatziko da:

1. Lan esperientzian puntuaziorik handiena duen lanpostugaiaren alde, bigarren tokian prestakuntzan puntuaziorik handiena duena eta azkenik zozketa bidez puntuazio bera duten lanpostugaien artean.

2. Hautaketa prozesuko atalen kalifikazioa amaituta, epaimahaiak lanpostugai bakoitzaren lan poltsako sailkapen edo hurrenkera proposamena igorriko dio Udaleko gobernu batzordeari, hark dagokion erabakia har dezan, lan poltsa puntuazio hurrenkeraren arabera eratutzat joz. Proposamenean ariketa baztertzaileak gainditu dituzten lanpostugai guztien izenak agertuko dira, izangai bakoitzak lortu duen puntuazioaren arabera ordenaturik.

3. Lan poltsako lanpostugaiak kontratatu edo izendatu ahala, deialdiaren oinarrietan eskatutako baldintzak betetzearen egiaztagiriak aurkezteko eskatuko zaie.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

4. Agiriak aurkeztuko ez balituzte, edo haiek aztertzean ondorioztatu balitz oinarrietan eskatutako baldintzaren bat falta dutela, lan poltsatik kanporatuko dira eta haiei dagozkien jarduera guztiak ezeztatuko dira.

9. Gorabeherak

Epaimahaiari baimena eman zaio sortzen diren zalantzak konpondu eta aukeraketa prozesua onez buru dadin behar diren erabaki guztiak hartzeko, oinarri hauetan aurreikusita ez dagoen guztiari dagokionez.

Interesdunek deialdia, oinarriak eta berauetatik zein epaimahaiaren jardueraren ondorioz sor daitezkeen administrazio egintza guztien aurka egin dezakete, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 39/2015 Legean ezarritako kasuetan eta moduan.

Oinarri hauetan aurreikusita ez dauden kontuetarako, ordezko aplikazioa izango du Langileria Estatuko Administrazio Orokorreko Zerbitzura Sartzeko Arautegi Orokorra onesteari buruzko martxoaren 10eko 364/1995 Errege Dekretuak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko /2007 Legeak eta bat datozen xedapenek araututakoak.

10. Datu pertsonalak babestea

1. Hautaketa prozesuan bildutako datu pertsonalak "hautaketa prozesuak" izeneko datu pertsonalen fitxategi automatizatu batean sartuko dira. Haren helburua Dulantziko Udalaren aldi baterako zerbitzu eskaerei erantzuteko langileak hautatzeko prozesuen kudeaketa eta jarraipena egitea da, baita eskatzaileei haien garapenaren berri emateko ere.

Fitxategi horren arduraduna Dulantziko Udala da eta eskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak alkatetzaren aurrean erabiliko dira: Herriko plaza kalea, 1 zenbakia, 01240 Dulantzi.

2. Hautaketa prozesuan emandako datuak Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio publiko batzuei hala eskatzen dutenean laga dakizkie. Izaera pertsonaleko datuei dagokienez, aipatu bezala datuak laga nahi dituzten lanpostugaiek horretarako berariazko baimena eman beharko dute.

11. Lan poltsaren baldintzak

Lan poltsaren kontzeptua:

Lan poltsa hori horretarako deitutako hautaketa proba gainditu duten pertsonen zerrendak osatzen du.

Lan poltsa erabiltzeko kasua:

1) Aldi baterako enplegu programetarako balioko du.

2) Langile lan-kontratudunen lanpostu hutsak, oporrak eta bajak betetzeko balioko du.

Aldi baterako programak betetzeko aldi baterako langile lan-kontratudunak izendatzeko erabili ahalko da. Izendapena egitean aurreikusten den programaren amaiera data zehaztu beharko da, bai eta amaiera zehazteko inguruabarrak eta izendapena egitera behartzen dutenak ere.

Zein egoeratan egon daitezkeen lan poltsako partaideak.

1. Erabilgarri: ez dabil zerbitzuak ematen Dulantziko Udalean.

2. Lanean: zerbitzuak ematen ari da Dulantziko Udalaren eremuan. Egoera horretan dauden langileak erabilgarri egoerara igaroko dira eta, ondorioz, lan eskaintzak jaso ahal izango dituzte, zerbitzuak ematen amaitzen dutenean.

3. Aldi baterako baja: hauek igaroko dira egoera horretara idatziz eskatu ondoren:

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

– Aldi baterako ezintasun egoeran edo amatasun, aitatasun edo lana eta familia bateratzeko lizentziarekin daudela egiaztatzen dituztenak.

– Dulantziko Udalaren eremutik kanpo lanean ari direnak, 15 eguneko epean justifikatu ondoren.

– Behar bezala justifikatutako kausak alegatzen dituztenak. Alkatetzari dagokio haiek baloratzea.

Aldi baterako baja egoerara igaroarazi zuen kausa amaitutakoan, interesdunak idatziz jakinarazi beharko dio Dulantziko Udalari 10 eguneko epean, egiaztagiriak erantsiz.

4. Behin betiko baja: hauek igaroko dira egoera horretara:

– Euren borondatez eskatzen dutenak.

– Dulantziko Udalarekiko enplegu harremanean euren borondatez baja hartzen dutenak.

– 15 eguneko epean aldi baterako baja egoerara igaroarazi duen kausaren egiaztagiririk aurkeztu ez dutenak eta epe horretan aldi baterako baja egoera amaitu dela jakinarazi edo egiaztatzen ez dutenak.

– Helbide edo telefono aldaketa ez jakinarazteagatik, ezin aurkituzko egoeran alta ematen zaienak eta egoera horretan hiru hilabetetik gora dirautenak.

– Eskainitako lana onartzen ez dutenak edo onartu ondoren izendatzeko eskatutako titulu baldintzak betetzen ez dituztenak.

– Onartutako lana eskainitako beste bategatik uztea, egiten ari zen lana 15 egunetik beherakoa izan eta eskaintza berria 3 hiletik gora izan ezean.

Edozein kasutan behin betiko baja lan poltsan baino ez da gertatuko.

5. Ezin aurkituzkoa: langile zerbitzuak alta emango die ofizioz egoera horretan helbide edo telefono aldaketa jakinarazi ez izanagatik, telegramei edo egiten zaizkien telefono deiei erantzuten ez dietenei. Egoera horretan ez da batere lan eskaintzarik egingo.

Zehapen prozedura:

Alkateak, Euskal Funtzio Publikoaren Legean astun edo oso astun gisa tipifikatutako hutsegiteengatik, funtzionarioa edo langile lan-kontratuduna dagokion poltsatik baztertzeko edo behin betiko baja emateko eskatu ahalko du.

Zehapen prozedura honetan, interesdunaren eskubideak bermatuko dira eta, betiere, entzunaldia emango zaio interesdunari eta langileen ordezkariak ere entzungo dira.

Deitzeko irizpideak.

a) Lan poltsaren hautaketa prozesuan ezarritako ordenaren arabera deituko da.

b) Deitutako pertsonak 24 orduko epean eskainitako lana onartuko ez balu, behin betiko baja egoerara igaroko da poltsan, behar bezala justifikatu eta alkatetzak ontzat emandako ezinbesteko kasuan izan ezik.

Salbuespena lan poltsaren deitzeko ordenari:

Pertsona batek postu jakin batean lan egin duenean eta 4 hilabete igaro aurretik postu hori bete behar denean, pertsona bera izendatu ahalko da, poltsan erabilgarri badago.

Kontratuen baldintzak:

Lanpostugai guztiek probaldi bat gainditu beharko dute kontratuaren iraupenaren arabera, gehienez 15 egunekoa.

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Probaldia amaituta zerbitzuko arduradunak edo pertsonalburuak txostena egingo du, epaimahaiak ebaluatuko duena. Lan poltsatik baztertzea ekarri ahalko du txosten horrek.

Ezingo da inolaz ere langile lan-kontratudun bihurtu oinarri hauetan ezarritako hautaketa irizpideak aplikatzeagatik.

Lan poltsaren indarraldia:

Indarraldia lan poltsa horri dagokiona izango da.

Dulantzi, 2020ko urtarrilaren 23a

Alkatea
JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

I. eranskina

Eskaera eredua

Udal eraikin eta instalazioetako arduradunak aldi baterako kontratatzeko lan poltsa handitzeko probetara onartzeko eskaera:

Izena .....

Lehen abizena .....

Bigarren abizena .....

Jaiotze data .....sorlekua .....

Probintzia ....., adin nagusikoa, ...zenbakiko NANa duena, telefonoa .....helbidea ..... kalean duena, herria ..... probintzia _.....posta kodea .....

Agertu eta hoberen komeni denez hau dio:

Udal eraikin eta instalazioetako arduraduna aldi baterako kontratatzeko lan poltsa oposizio bidez handitzeko deialdian onartua izatea eskatzen duela.

Karguaren zereginak betetzeko gaitasun funtzionala daukala.

Ez duela indarrean dauden lege xedapenetan ezartzen diren ezgaitasunetako bat ere.

Diziplinako espedientearen bidez inongo administrazio publikotik baztertua ez dagoela, ez eta herri eginkizunak betetzeko ezgaiturik ere.

Deialdiko 2. oinarrian adierazten den titulazioa daukala, eta eskatzen diren baldintza guzti-guztiak betetzen dituela.

Eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

- NANaren fotokopia eransten dut.
- Euskarako 2. HEaren egiaztagiriaren kopia eransten dut.
- Lehiaketa aldiari lotutako agiri hauek eransten ditut:

.....

.....

Eskatzen dut

Hautaprobak egiteko onar nazatela.

....., ...(e) ko .....aren .....(a).

(sinadura)

L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 153457
Fecha de firma: 2020.02.05 06:30:56 Z